

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5052

AGINDUA, 2024ko urriaren 24koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baita Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2024ko maiatzaren 28ko Aginduaren babesean aurkeztutako dirulaguntza eskabideen ebazpena. Agindu haren bidez, deialdia egin zen Eusko Legebiltzarrean ordezkatura dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako 2024ko dirulaguntzetarako.

Ekainaren 30eko 119/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 9ko EHAA, 128. zk., eta haren huts-zuzenketa 2015eko irailaren 8ko EHAAn, 170. zk.) arautzen du Eusko Legebiltzarrean ordezkatura dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako dirulaguntzak emateko modua. Dekretu horretan ezarritakoari jarraikiz, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara emango da urteko deialdiaren ebazpena.

Horri jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Jendurrean jartzea Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2024ko maiatzaren 28ko Aginduaren babesean aurkeztu diren erakunde eskatzaile onuradunak, lortu duten balorazioa, eta erakunde bakoitzari esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoa eta artxibatutako eskabidea (agindu haren bidez, deialdia egin zen Eusko Legebiltzarrean ordezkatura dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako 2024ko dirulaguntzetarako). Datu horiek guztiak eranskinetan jasota daude.

2. artikulua.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara dadin agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 24.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOTXEA OTAOLEA.

2024ko azaroaren 6a, asteazkena

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDU DIREN ESKABIDEAK

Eskatzailea	Puntuak	Esleitutako dirulaguntza
Fundación Alkartasuna Fundazioa	42,69	700,00
Fundación Ramón Rubial Fundazioa	42,05	17.101,00
Iratzar Fundazioa	78,58	123.324,00
Sabino Arana Fundazioa	74,38	138.875,00
Guztira:		280.000,00

2024ko azaroaren 6a, asteazkena

II. ERANSKINA

ARTXIBATUTAKO ESKABIDEAK

Eskatzailea	Zergatia
Fundación Popular de Estudios Vascos	Uko egin dio dirulaguntzari